

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren 85/2020 Foru Agindua, apirilaren 14koa, Ondategin hipikako eta aisialdiko zentro bat lurzoru urbanizaezinean ezartzeko plan bereziaren ingurumen txosten estrategikoa ematekoa

Erreferentziatzko plan bereziaren izapidetzea ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedurari lotuta dago; prozedura hori Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeak arautzen du.

Prozedura horren esparruan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak Ondategin hipikako eta aisialdiko zentro bat ezartzeko plan bereziari buruzko ingurumen dokumentu estrategikoa jaso zuen Zigoitiko Udalak igorririk, bai eta hirigintza agiria ere.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, lehen aipatutako dokumentazio hori jaso ondoren, kontsultak egiteko aldiari hasiera eman zion eragindako administrazio publiko eta pertsona interesdunei dagokienez, 45 egun balioduneko epearekin, 21/2013 Legearen 30. artikuluan ezarritako moduan.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2020ko apirilaren 6an eman du Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (19/28 espedientea).

1. Plan bereziaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. Plan bereziaren ezaugarrien laburpena:

Saibari Procap SLk zaldien abeltzaintza ustiategi bat dauka Ondategin. Enpresak bere oraingo jarduera hedatu nahi du, eta erabilera mistoa eman nahi dio; hau da, zaldien abeltzaintza erabilera eta hipikako eta aisialdiko jardueren erabilera, Zigoitiko udalerriko 314 eta 315 lurzatietan. Gainera, txakurrentzako egoitza, entrenamendu eta trebatze jarduera bat egin nahi du udalerririk horretako 316 lurzatian.

Abeltzaintza ustiategiko jarduera handitu nahi bada hipikako eta aisialdiko jarduerekin eta txakurren jarduerekin, eraikuntza lan hauek egin behar dira:

– Jarduera hipikoetarako:

– 315 lurzatian dagoen bulego lokala eraberritzea, lokal sozial bat egiteko aldagela, komun eta guzti.

– 314 lurzatian dagoen nekazaritza biltegia eraistea, eta nekazaritza biltegi bat altxatzea zaintzaileentzako garita eta guzti.

– Txakurren jardueretarako:

– Txakur etxolak eraikitzea 316 lurzatian, txakurrak han egoteko.

– Kirol pista bat egitea txakurrak entrenatu eta trebatzeko.


1.2. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa:

Plan bereziaren jardun eremuak Zigoitiko udalerriko 6 poligonoko 314, 315 eta 316 lurzatiak hartzen ditu, zeinek, guztira, 70.770,04 m²-ko katastro azalera baitaukate honela banatuta:

- Jarduera hipikoetarako:
- 314 lurzattia: 33.045,40 m².
- 315 lurzattia: 19.486,85m².
- Txakurren jardueretarako:
- 316 lurzattia: 18.237,79 m².



Plan bereziaren eremua airetik harturiko egungo ortofotoaren gainean



Plan bereziaren eremua eta proposatzen den antolamendua (eraberritu, handitu eta ordeztu beharreko eraikinak)

1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan azaltzen denaren arabera, guztira bi aukera hartu dira kontuan:

- “0” aukera edo ez esku hartzekoa (ez da hautatu): Ekimena ez gauzatzea litzateke, eta ez lirateke sustatzailearen beharrak beteko. Lehendik dagoen abeletxeak jarduera jada baimenduekin jarraituko luke.

- “1. aukera (hau hautatu da): Enpresak bere oraingo jarduera hedatu nahi du, erabilera mistoa emateko; hau da, zaldien abeltzaintza erabilera eta hipikako eta aisialdiko jardueren erabilera, 314 eta 315 lurzatietan. Gainera, txakurrentzako egoitza, entrenamendu eta trebatze jarduera bat egin nahi da 316 lurzatian.

2. Kontsulta fasearen laburpena

Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak abian jarri zuen eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko fasea, araututako prozedurari jarraituz. Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarteen zerrenda jarri eta haietatik zeinek erantzun duen adierazten da:

URA – Uraren Euskal Agentzia	√
Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza Natura Elkartea	
GAIA elkarte	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartasuna	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	√
Arabako Kontzejuen Elkartea	
SEO Bird Life	
Zigoitiko Udala	
Gorbeialdeko Kuadrilla	
Ondategiko Administrazio Batzarra	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	√

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoaren laburpena (alegazio edo gogoeten kopia osoa dago Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 19/28 espedientean eta www.araba.eus webgunean):

- Arabako Museo eta Arkeologia Zerbitzuak dio ezen plan berezi honen xede diren lurzatie-tan ez dagoela hondakin edo egitura arkeologikoak egotearen frogarik. Edonola ere, berehala jakinarazi beharko zaio Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari, baldin eta aurkikuntza arkeologikorik egoten bada.

- URA – Uraren Euskal Agentziak bi txosten egin ditu. Lehenengoan zehazten du eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri diola, egokituz joz gero, gaiari buruzko irizpena eman dezan, bat etorritz Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeak ezarritakoarekin.

Bigarren txostenean esaten da ezen plan bereziaren eremua dagoela Izaia edo Saibarri erre-karen eskuinaldean, zeinak urak isurtzen baititu, ibaian behera, Zadorraren adar den Zubialden; hortaz, Zadorrako Unitate Hidrologikoan eta, ondorioz, Ebroren Demarkazio Hidrografikoan.

Hainbat ohar egin dira uren arloan antzemandako gabeziei buruz (gabezia horiek antzeman dira eremuaren azalerako urak eta urbanizazioaren atzeragunea –15 metrokoa izan beharko litzateke– deskribatzearen inguruan), nahiz eta hau ondorioztatzen den, gabezia horiek gora-behera: “ez da espero zuzenean edo zeharka kalterik eragingo zaionik ingurune hidrikoari plan berezian proposatutako instalazioak eraikitzearen ondorioz”

Egon daitekeen uholde arriskuari dagokionez, eta kontuan izanda zein diren txakur etxolen kokapenaren ezaugarriak, "beharrezko irizten zaio arriskuaren azterketa edo azterlan hidraulikoa aurkeztea", eta horretarako, lehenetsuneko fluxu zona eta uholde arriskuko gainerako zona identifikatu beharko dira, uren arloko araudian xedatutakoa betetzeko. Ondorioz, "beharrezkoa izango da eremuaren arriskuaren gaineko azterketaren emaitzak Urenen Euskal Agentzian aurkeztea, hurrengo fasean (hirigintzako izapideak) balidatzeko".

Hornidurari dagokionez, URAk dio ez dela asko handituko uraren kontsumoaren eskaria; hortaz, inpaktua bateragarria da. Edonola ere, baliabide hidriko nahikoa egon eta haiek erabili ahal izateari dagokionez, arroko erakundeak (Ebroko Konfederazio Hidrografikoa) bere txostenean jasorikoa bete beharko da, zeina eman beharko baita Uren Legearen testu bateginaren 25.4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Saneamendu kontuetan URAk adierazi du ez dela egingo plan berezian jasoriko jardueren ondoriozko isurketarik ez lursailietara ez eta ibilgu publikora ere. Adierazi duen gauza bakarra da ezen, obrek dirauten bitartean, egiaztatu beharko dela ez zaiola kalterik eragingo ibilgu mugakideen kalitateari aurreikusita dauden lur mugimenduen ondorioz.

- Arabako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzak Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren txosten bat helarazi du adieraziz plan bereziaren bidez garatu beharreko eremuan ez dagoela elementu edo higiezinik babestu behar denik bere historia eta kultura balioagatik; beraz, ez dagoela inolako eragozpenik izapidetu beharrekoa izapidetzeko.

- Eusko Jaurlaritzako Ondare Zuzendaritzak jakinarazi du, dokumentazioa aztertuta, ez dela aurreikusten plan bereziaren eremuan kultura ondareari eragingo zaionik.

- Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuak, plan bereziaren laburpena egin ondoren, adierazi du ez zaiela eragiten onura publikokotzat katalogatutako mendiei, ez eta erakunde publikoenei ere, eta ingurumen dokumentuak jasotzen duenez, orain lurzatian dauden zuhaitzak zaindu behar dira; horiek horrela, aldeko txostena eman da. Gomendatzen da kontuan izatea "Hiri-eta baso-interfazeko esparruetan kokatutako eraikin edo instalazio berrien baso-sutearen arriskurako autobabes planei buruzko zehaztapenak", zeinak jasota baitaude EAEko baso suteetarako Larrialdi Plan Bereziaren VI. eranskinean.

- IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak honako hau adierazi du: "Erakunde honek duen informazioaren arabera, aipatutako kokapenean ez da izan lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik; horrenbestez, ez dago jasota lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan". Era berean, hau dio: "kutsadura zantzurik agertuz gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaio, Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeari buruzko 4/2015 Legearen 22. artikuluan ezarritakoa betez".

- Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak, plan bereziaren proposamenaren laburpena egin ondoren, hau ondorioztatu du: "irizten zaio aurkeztu den ingurumen dokumentuak egoki deskribatzen dituela plan bereziak eragindako eremuaren natura balioak, bai eta prebentzio eta zuzenketa neurri egokiak planteatzen dituela ere". Edonola ere, gomendio batzuk egin ditu espezieak eta landaketa esparruak hautatzeari dagokionez:

- "Ingurumena leheneratzeko proiektuak inguruko natura landareak izan behar ditu oinarri, eta horretarako, hauexek erabili behar ditu:

- Plan bereziaren eremuaren ekialdeko muga osoan, zeina ibai ibilgu txiki baten mugakide baita, lizardi-zumardi sortako berezko espezieak.

- Eremuaren gainerako tokian, erkameztiaren berezko espezieak.

- Landaketa esparrua honelakoa izan beharko litzateke: 3x3 zuhaitz espezieetarako eta 2x2 zuhaixka espezieetarako.

- Abereak ez daitezten sartu ibaiertzean, ekialdeko zerrenda guztian hesia jarri beharko litzateke".

• Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak txosten bat egin du, eta hor, plan bereziaren laburpen bat egin da. Plan bereziak eragindako lurzatiak lurzoru urbanizaezinak dira, eta kategoria hauek dauzkate Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialaren arabera: “Balio estrategiko altua”, “Trantsizioko landa paisaia” eta “Mendi larrea”; hortaz, beharrezkoa da aplikatzea nekazaritza arloko eragina ebaluatzeko protokoloa. I. eranskinean protokolo hori aztertzen da, eta zenbait parametro baloratuta (lurzoruaren okupazioa, nekazaritza azpiegituren eragina eta nekazaritza ustategien bideragarritasun ekonomikoaren gaineko eragina), hauxe ondorioztatzen da: “Plana bateragarria da nekazaritza jarduerarekin, eta lurzoru galerarekin bateragarria den inpaktua izango du”; hortaz, soilik hau egin daiteke: “neurri bat hartu balio estrategiko altuko lurzoruen 3.000 m²-ak galtzea konpentsatzeko, kategoria horren pean kalifikatuta egon daitezkeen beste azalera batzuk kalifikatuta udal ordenamenduaren barruan.” Horrez gain, positiboki baloratzen da zaintzea eragin eremuan dauden zuhaitzi isolatuen guneak. Bukatzeko, hau dio: “Zigoitiko udalerrian plan berezi hau onesteak eragindako inpaktua bateragarria da; edonola ere, aplikatzea den arloko arauditik eratorritako xedapenak bete behar dira”.

3. Eragina izan dezaketen ingurumen balio handiagoko elementuak. Ingurumen inpaktu nagusiak

Ingurumen dokumentu estrategikoaren 8. apartatuan eta hirigintza dokumentuaren 13. apartatuan, txosten honen azterketa xede den plan bereziak eragindako inpaktuen balorazioa egiten da, eta hura ontzat jotzen da. Taula honetan eragin nagusiak nabarmendu dira:

ERAGINDAKO INGURUNeko ELEMENTUA/EREMUA	DESKRIBAPEN LABURRA
Landaredia	Plan bereziaren eremuan dagoen zuhaitz landaredia naturala (erkameztiak – <i>Quercus faginea</i> – eta haritzak – <i>Quercus robur</i> –) egungo kontserbazio egoeran errespetatuko da, halaxe jasotzen baita ingurumen dokumentu estrategikoan bertan. Daukaten natura eta paisaia balioagatik gaur egungo egoeran kontserbatzea merezi duten unada edo zuhaitziak dira. Landaredia naturala babesteko baldintza hori plan bereziaren hirigintza dokumentuaren araudian jasota egon beharko da betiere.
Konektibitate ekologikoa	Sustataileak adierazi duenez, eraikin nagusiak lehendik daude, eta gainera, plan bereziaren xede diren lurzatiak hesituak daude; hortaz, jarduera hedatzeak ez dakar konektibitate galerarik ingurumen balio guneen artean. Horri dagokionez, gako izango da lehengo ingurumen baldintza, eremuan dagoen hango bertako landaredia naturala babesteari buruzkoa.
Paisaia	Jarduera hedatzeak ez du kasik eragingo ikusizko inpakturik, lehendik baitaude eraikinak. Eraikinen itxura bat dator eskualdeko eta inguruko eraikuntza tipologiarekin. Eraikin berriek Zigoitiko hirigintza plangintzan jasorikoa errespetatu beharko dute, eta ahal dela ez dute jarriko paisaiarekin bat ez datorren elementurik. Gainera, hango bertako espezieak landatzea proposatzen da, ingurumena leheneratzeko proiektu baten arabera. Berriz ere azpimarratu behar da zein garrantzitsua den babestea inguruan dauden zuhaixkak eta zuhaitzak.
Nekazaritza lurren okupazioa eta produktibitatearen galera	Plan bereziaren xede den eta 316 lurzatian dagoen txakurrak entrenatzeko pistarako izango den eremuaren zatirik handienean balio agrologiko handiko lurzoru dago. Lurzoru horietan, obren fasean sortuko litzateke eragina, pista, obren bideak, eta obren instalazio osagarriak egitearen eta materialak biltzearen ondorioz, baina baita txakurrak entrenatzeko pistaren ustiatze fasean ere, balio agrologiko handiko lurzoruen 3.000 m ² okupatuko direlako. Edonola ere, nekazaritza organo eskumendunak jardueraren inpaktua bateragarritzat jo du nekazaritzarekin eta nekazaritza lurzoruak okupatzearekin.

ERAGINDAKO INGURUNeko ELEMENTUA/EREMUA	DESKRIBAPEN LABURRA
Lurrazaleko eta lurpeko hidrologia	<p>Hornidurari dagokionez, ez da asko handituko uraren kontsumoaren eskaria, Eusko Jaurlaritzako administrazio hidraulikoaren balorazioaren arabera. Edonola ere, sustatzaileak badu Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren baimena lurpeko urak hartu eta aprobetxatzeko. Jarduerak ez du inolako isurketarik egingo ibilgu publikora, kanalizazio sistema baten bidez urak bildu eta putzu septiko batean tratatuko direlako, bai oraingo egoeran bai proiektuan jasorikoa.</p> <p>Egon daitekeen uholde arriskuari dagokionez, eta kontuan izanda zein diren txakur etxolen kokapenaren ezaugarriak, baita zer dioen arlo hidraulikoan eskumena daukan organoak ere, arriskuaren azterketa edo azterlan hidraulikoa aurkeztu beharko zaio URA Uraren Euskal Agentziari, eta horretarako, lehentasunezko fluxu zona eta uholde arriskuko gainerako zona identifikatu beharko dira, uren arloko araudian xedatutakoa betetzeko. Obrek dirauten bitartean, ibilgu mugakideen kalitatean baino ezin daiteke egon eraginik, aurreikusita dauden lur mugimenduen ondorioz; hortaz, ingurumen integrazioko neurriak inplementatuko dira.</p>
Hondakinak eta usainak sortzea	<p>Plan berezian jasoriko azpiegitura eta eraikinen obra fasean, eta ustiatze fasean, era desberdinetako hondakinak sortuko dira. Bai azpiegitura eta eraikinak altxatzetik datozen hondakinak bai animalien deiekzioetatik datozenak arloan arloko araudian ezarritakoari jarraituz kudeatuko dira. Usainen tratamenduari dagokionez, baita hondakinenari dagokionez ere, kontuan izanda zer nolako jarduera den, irizten zaio nahikoa garatuta dagoela ingurumen dokumentu estrategikoan eta plan berezian.</p>

Ingurumen osagai horietan sorrarazitako eragina neurri moderatukotzat jotzen da, baldin sustatzaileak aurreikusitako ingurumen integrazioko neurriak eta txosten honen hurrengo apartatuan adierazitakoak ere hartzen badira.

4. Ondorioak. Ingurumen baldintzak

Hirigintza agiriaren araudian sartu beharko dira, bai eta hartu ere, ingurumen agiri estrategikoaren “Plan berezitik eratorritako neurriak” izeneko 12. apartatuan jasotzen diren ingurumen arloko babes eta zuzenketa neurriak; bai eta plan berezian bertan jasorikoa ere; hain zuzen ere, “Babes, zuzenketa eta konpentsazio neurriak” izeneko 14. apartatuan. Halaber, lanen jarraipena egiten den bitartean, kontuan hartu beharko dira ingurumen agiri estrategiko horren 13. apartatuan jasotzen diren neurriak.

Horrez gain, neurri hauek ere hartuko dira kontuan, zeinak, era berean, plan bereziaren arauen atalean jaso beharko baitira:

- Plan bereziaren eremuan dagoen zuhaitz landaredia babestu beharko da. Horretarako, eta kontuan izanda zein garrantzitsua den landarediaren, basa faunaren, paisaiaren eta konektibitate ekologikoaren ikuspuntutik, planaren araudian jasoko da zer mugaketa zehatz daukaten landaredia autoktono babestuen zonek (zuhaitz unadak, ale sakabanatuak eta mugakide den Izaia edo Saibarri errekaen ibaiertzeko landaredia).

- Sustatzaileak, ingurumen dokumentuan, ingurumena leheneratu eta paisaia egokitzeko proiektu bat idazteari buruzko neurria jasotzen du, non jardunek eragindako ingurune guztia jasotzen baita. Planaren araudian jasoko da proiektu hau ingurumen organoari aurkeztu behar zaiola, hark txostena egin eta onetsi dezan. Proiektuak inguruabar hauek izan beharko ditu kontuan, espezieak hautatzeari eta landaketa esparruari dagokionez:

- Plan bereziaren eremuaren ekialdeko muga osoan, zeina ibai ibilgu txiki baten mugakide baita, lizardi eta sahasi sortako berezko espezieak. Gainera, astigar arrunta (*Acer campestre*) eta erkametza (*Quercus faginea*) landatuko dira tarteka.

- Eremuaren gainerako tokian, erkameztiaren berezko espezieak eta toki batzuetan arteak (*Quercus ilex azpiessp. rotundifolia*).

- Landaketa esparrua honelakoa izan beharko litzateke: 3x3 zuhaitz espezieetarako eta 1,5x1,5 zuhaixka espezieetarako.

– Landa eremua itxi egingo da erreka ertzaren ondoan, abereak ez daitezen hurbildu zuhaitzen eremura.

– Landaketen osoko mantenua egingo da. Horretarako, ureztatu egingo dira urik ez dagoe-nean eta faltak sartuko dira landaketaren lehenengo urtean.

• Egon daitekeen uholde arriskuari dagokionez, eta kontuan izanda zein diren txakur etxolen kokapenaren ezaugarriak, beharrezko irizten zaio arriskuaren azterketa edo azterlan hidraulikoa aurkeztea URA Uraren Euskal Agentziari, eta horretarako, lehentasunezko fluxu zona eta uholde arriskuko gainerako zona identifikatu beharko dira, uren arloko araudian xedatutakoa betetzeko. Azterlan hidrauliko horren kopia Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzari helaraziko zaio. Horrez gain, eta Izua edo Saibarrai errekarik kalterik ez eragiteko, beharrezkoa izango da errekararen eskuinalde guztia behar bezala zuinkatzea, obrek dirauten aldirian. Lastozko balak edo ehun geotestila erabil daitezke, eremua mugatzeko ez ezik material eta solido esekiak ibilgura isur ez daitezen ere.

• Plan berezian jasoriko eraikinak okupatuko dituen lurralde dagozkion horizonte edafikoak aukeraketa eginez kenduko dira eta egokia izango da berehala horiek banatzea eta biltzea, ahal bada plan bereziaren eremuari atxikitako lursail batean. Gehienez 2,5 metro garai izan daitezkeen sekzio trapezoidaleko multzotan egin behar da pilaketa. Obrak eragindako eremuetan landaretza leheneratzeko eta lurzorua birjartzeko egin behar diren lanetan erabiliko da landare lurra, edota finka edo mendi mugakideetako lurzorua hobetzeko.

• Plan bereziaren berrikuspenera garatzeko jarduerak eragin litzaketan eraispen eta eraikuntza lanak gauzatzeko aldirian, ontzi estankoa, gordailu iragazgaitzak edo bestelako sistemak jarri beharko dira lubrifikatzaileak edo erregaiak biltegitatzeko, eta debekatuta dago erabilitakoak isurtzea. Kudeatzaile baimendu bati emango zaizkio halakoak. Debeku hori beste hauetara ere hedatzen da: hormigoi hondakinak, eraikinetako materialak, lurrak eta abar; horiek guztiak baimendutako hondakindegira edo zabortegietara eramane beharko dira. Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan adierazi bezala kudeatu beharko dira eraikuntzako eta eraispen lanetako hondakinak. Dekretu horrek eraikuntzako eta eraispenetako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu.

• Sustatzaileak eta Foru Aldundi honetako Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak ingurumen jarraipena egingo dute plan bereziaren eremuko obren fasean. Hartara, ingurumena leheneratzeko aplikatutako neurri zuzentzaileak eraginkorrak izan diren ala ez jakin eta ebaluatuko dute, eta, hala badagokio, aurki daitezkeen hutsuneak zuzenduko dituzte. Horri dagokionez, jarduketak hasi baino lehen, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari jakinaraziko zaio, ezarritako ingurumen neurriak ondo bete direla egiaztatzeko.

Horrenbestez, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ondategin hipikako eta aisialdiko zentro bat lurzoru urbanizaezinean ezartzeko plan bereziaren ingurumen txosten estrategikoa ematea.

Bigarrena. Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legea betetzeko, ingurumen txosten estrategikoa ingurumen irizpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Agintzea ingurumen txosten estrategikoa hau ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilaren 14a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria
NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA